

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Derioko Udala****Udal ordenantzaren behin betiko onarpena**

Derioko Udalbatzak, 2020ko uztailaren 23an egindako ohiko bilkuran behin-behingo onartu zuen adingabeak zaintzeko langabetuak kontratatzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta Udal Ordenantza.

Epe horretan alegaziorik edo erreklamaziorik ez izanik, behin-behineko erabakia behin betikotzat jotzen da automatikoki. Horrenbestez, ordenantzaren testu osoa argitaratzen da.

AURKABIDEAK

Ebazpen honek amaiera ematen dion administrazio bideari, eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzitarako Aretoan, bi hilabeteko apean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu duen uztailaren 13ko 29/1998 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hori gora-behera, egoki deritzozun beste edozein aukabide erabil dezakezu, hala nahi izanez gero.

Derion, 2020ko irailaren 23an.—Idazkaria

**ADINGABEAK ZAINTEZ ALDERA LEHENTASUNEZ DERIO UDALERRIAN
ERROLDATUTA DAUDEN LANGABETUAK KONTRATATZEKO LAGUNTZEN
OINARRI ARAUTZAILEAK ETA UDAL ORDENANTZA****1. Xedea**

Laguntza hauen xedea Derion erroldatutako pertsona fisikoek ohiko merkatuan langabetuen kontratazioa sustatzeko laguntza ekonomikoa ematea da. Lehentasunez Derion erroldatuak egongo dira eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emana izango dute. Kontratazioaren helburua 2020. eta 2008. urteen bitartean jaiotako adingabeak udan zaintzea da.

2. Araubide juridikoa

Ordenantza honek aurrez ikusitakoaz gain, kontratatzeke laguntzek honako hauek hartuko dituzte kontuan: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Orokorrari; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorrari buruzkoa; Dirulaguntzak arautzeko Derioko Udalaren indarreko Ordenantza.

3. Onuradunen baldintzak

Kontratazioa sustatzeko laguntza hauen onuradun izan daitezke pertsona fisiko guztiak, 2020ko urtarrilaren 1a baino lehen Derion erroldatuak badaude eta enplegu-emaile modura laguntza hauen xede den zerbitzurako pertsona fisikoak kontratatzen badituzte.

4. Dirulaguntzaren xede diren kontratazioen baldintzak

- Pertsona kontratugileak edo enplegu-emaileak pertsona fisikoa izan beharko du. Enpresen bitartez kontratatutako zerbitzuak ez dira diruz lagunduko.
- Kontratatzean, kontratatutako pertsona langabezian egongo da eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emana izango du. Gainera, ez da Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean edo Langile Autonomoen Erregimen Berezian langile gisa alta emanda egongo. Enplegu-eskatzailatzat jotzen da Eskea Alta Eman eta Berritzeko Agiriaren (Darde) bitartez enplegu-eskatzaille gisa alta egoeran dagoela ziurta dezakeen pertsona oro.
- Gainera, kontratatutako pertsona lehentasunez Derio udalerrian erroldatuta egongo da.
- Pertsona kontratugilearen eta zaindutako pertsonaren artean lehen mailako odol-kidetasun edo parekotasunaren ondorioz ahaidetasun-erlazioa ezinbestekoa da.
- Pertsona kontratugilearen ezkontidea, ondorengoak eta bigarren mailara arte odol-kidetasun edo parekotasunaren ondorioz ahaidetasun-harremana duten gainerako ahaideak kontratatzea ez da diruz lagunduko.
- Kontratuak gutxienez astebeterako izango dira.
- Kontratuak edozein kontratazio-modalitatepean formaliza daitezke, prestatzeko eta ikasteko kontratua eta praktiketako kontratua izan ezik.
- Kontratuak gutxienez astean 10 ordukoak izango dira.
- Bakarrik diruz lagundu ahal izango dira 2020ko ekainaren 1etik 2020ko irailaren 6ra bitartean formalizatutako kontratazioak.

Pertsona fisiko edo ezkontide bakoitzeko ez da dirulaguntza bat baino gehiago emango.

Kontratazioak dirulaguntza amaitutakoan luzatu ahal izango dira, baina ondorengo datetako kostuak ez dira dirulaguntzaren xede izango.

5. Aurrekontu-kreditua eta dirulaguntzaren banako zenbatekoa

Emango diren dirulaguntzen zenbateko guztia 26.000 eurokoa izango da, «Enplegua Sustatzea» 2410 47000 aurrekontu-kredituaren kargura.

Laguntzaren azken zenbatekoa ordainsari kostuen %30 izango da, kontratua amaitutakoan kalte-ordainak eta kontratatutako pertsonari dagokion enpresaren Gizarte Segurantzari buruzko gastuak barne. Kontratatutako pertsona 16 eta 35 urte bitarteko gaz-



teen artean badago, laguntza %5 gehituko da eta euskara dakiela egiaztatzen badu, beste %5. Azkenik Derion erroldatutako pertsona izanez gero, %10 gehiago emango da.

Nolanahi ere, onuraduneko banan-banan gehienez 600 euro emango dira.

Laguntzak ordainketa bakarrean emango dira, dirulaguntzaren xede den kontratua amaitutakoan eta pertsona kontratugileak bete duela behar bezala justifikatutakoan.

Eskaeren kopuruak aurrekontu-kreditu erabilgarria gainditzen badu, erregistroan sartu den zenbakiaren arabera emango dira laguntzak, aurrekontu-kreditua agortu arte.

6. Beste laguntza edo dirulaguntza batzuekin batzea

Deialdi honetan aurrez ikusitako dirulaguntzak beste dirulaguntza- edo laguntza-mota bat lortzearekin bateragarriak izango dira, kontzeptu eta helburu berdinarekin beste administrazio edo erakunde publiko ala pribatuak ematen badituzte. Dena den, finantza-iturri desberdinen bitartez lortutako laguntzen edo baliabideen zenbateko guztiak ez du ordainsari gordinaren kostua gaindituko. Kostua gaindituz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztuko da.

7. Eskabideak aurkeztea

Pertsona kontratugile bakoitzak eskaera bakarra aurkeztuko du. Eskatzaileak dirulaguntzaren xede den denboraldian hainbat kontratu egin baditu, eskabide bakarra aurkeztuko da eta horri kontratazio desberdinen dokumentazio guztia erantsiko zaio.

Eskabideak I. eranskinean ageri den ereduarekin bat aurkeztuko dira eta honako dokumentazio hau gehituko zaie:

- Kontratututako pertsonaren eta pertsona kontratugilearen NANaren kopia.
- Dirulaguntzaren xede den kontratuaren kopia.
- Emandako laguntza justifikatzen duten nominak, LZN eta KLZ.
- Pertsona kontratugilea kontratatutako pertsonaren ezkontidea edo bigarren mailara arte, hori barne, odolkidetasunaren edo parekotasunaren bitartez ahaidea ez dela azaltzen duen erantzukizunpeko adierazpena.
- Dirulaguntzaren xede den kontratazioak gehiegizko finantzaketa ez duela azaltzen duen ziurtagiria (V. eranskina).
- Hirugarrenen alta fitxa, bankuko kontu-zenbakiaren titulartasuna justifikatzen duena (VI. eranskina).
- Bidezkoa bada, kontratatutako pertsonak euskara dakiela ziurtatzen duen agiria: B2 edo goragokoa.
- Pertsona kontratutua enplegu eskatzaile gisa alta emandako egoeran dagoela adierazten duen Eskaeren Alta edo Berritze Agiriaren (Darde) kopia.
- Kontratututako pertsonaren lan-biziaren kopia.

Derioko Udalak dokumentazio edo informazio osagarria eska dezake, eskatzaileak helarazitako datuak zuzenak direla egiaztatzeko, eta administrazioak zehazten dituen egiaztapen-jarduerak onartu beharko ditu.

Eskaerak aurrez aurre aurkeztu ahalko dira udaletxean, baita Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako modu guztietan ere.

Eskaerak eta dokumentazioa aurrez aurre aurkezten direnean udaletxeko erregistroan, originalak aurkeztuko dira, eta kopia autentiko moduan digitalizatuko dira; originalak, berriz, interesdunari itzuliko zaizkio.

Administrazioak egiaztatuko du eskatzaileak udalerrian erroldatuta egon direla 2020ko urtarrilaren 1a baino lehen.

Dirulaguntza-eskaera aurkeztean, baimena ematen zaio organo kudeatzaileari Zerga Administrazioako Estatu Agentziak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak igorri beharreko ziurtagiriak biltzeko, baldin eta beharrezkoak badira.



Eskaerak ez baditu betetzen eskatutako baldintzak, interesdunari eskatuko zaio 5 egun naturaleko epean hori konpontzeko edo nahitaezko dokumentuak atxikitzeko; ez badu hori egiten, eskaera bertan behera geldituko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako terminoetan eman beharko den ebazpenari jarraikiz.

8. Emateko prozedura

Dirulaguntzak araudian zehaztutako lehia-prozedurarekin bat esleituko dira, zehaztasun hauekin:

1. Espedientearen organo instruktorea Udaleko Herritartasun Saileko teknikari bat izango da. Organo instruktoreak eskaerak baloratuko ditu, eta egiaztatuko du eskatzaileek oinarri hauetan xedatutakoa bete dutela, eta, hala badagokio, datu eta dokumentuetan beharrezko zuzenketak egin dituztela. Ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeari proposamen-txostena bidaliko dio, eta hark erabaki bat hartuko du dirulaguntzaren ebazpen-proposamenarekin.

Ebazpen-proposamena eskatzaileei jakinaraziko zaie, egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ditzaten.

2. Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, Alkatetzak espedientearen ebazpena ebatziko du. Ebazpenean, dirulaguntza jasoko duten eskatzailea edo eskatzaileen zerrendaz gain, gainerako eskaeren ezespena jasoko du espresuki.
3. Ebazpena eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie. Ebazpen-proposamenek ez dute proposatutako onuradunaren aldeko eskubiderik sortzen, Administrazioaren aurrean, baldin eta ez bazaio jakinarazi esleipen-ebazpena.

9. Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntzak behin esleipena jakinaraztean ordainduko dira, onuradunaren banku-konturako transferentziaren bidez.

Organo kudeatzaileak ofizio eta laguntzak ordaindu baino lehen egiaztatuko du onuradunak Toki Ogasunarekiko zor guztiak ordaindu dituela.

Ez da ordainketarik egingo onuradunak aurreko ekitaldietan dirulaguntzarik jaso badu eta Udalak ez badu horien justifikazioa onetsi.

10. Onuradunaren betebeharrak

Dirulaguntzaren onuradunaren betebeharrak espezifikokoak dira, oinarri hauetan jasotako gain, honako hauek:

1. Dirulaguntzen esleipena arautzen duen araudiak ezarritako betebeharrak betetzea.
2. Finantza-egiaztapen eta -kontrolaren jarduketan xede izatea, jarduketa horien bitartez eskatutako informazio guztia aurkeztuz.

11. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Derioko Udalaren eskutik jasotako dirulaguntzak bateragarriak izango dira bestelako administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuenekin edo laguntzaren xede diren ikasketak finantzatzeko bestelako diru-sarrerara motekin, baldin eta ez badago gainfinantzetarik.

Jarduera zehatz eta espezifikoa ez da inolaz ere Udalaren finantzaketa bikoitzaren xede izango, dirulaguntza-deialdi ezberdinen bidez.

12. Publizitatea

Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak dirulaguntzen publizitatearen sistema nazional moduan jardungo du. Xede horietarako, administrazio esleitzzaileek Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari bidali beharko diote deialdiari eta esleipen-ebazpenei buruzko informazioa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako terminoetan.



Deialdiaren testua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, DDBNren bitartez, behin haren aurrean deialdiaren testua eta argitaratzeko eskatutako informazioa aurkeztu direnean.

13. Arau-haustek eta zehapenak

Arau-hausteen eta zehapenen araubidea honako hauek zehazten dute: Dirulaguntzak Emateko Derioko Udalaren Ordenantza Orokorrak, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak eta hori garatzen duen Erregelamenduak, 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onetsitakoak.

14. Datuak babestea

Dirulaguntzaren eskaera aurkeztu denean, erakunde eskatzaileak adostasuna ematen du eta deialdian ezartzen diren baldintzak guztiak betetzen dituela aitortu ere bai. Horrez gain, oso-osorik onartzen du guztia. 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, xedatzen duenerako, jakinarazten da datuak Derioko Udalaren fitxategi automatizatuan sartuko direla eta helburua Enplegu Arloko jarduerak kudeatzea dela.

Dirulaguntzaren eskaera aurkeztuz gero, legeak aurrez ikusitako ustezkoetan datuak beste herri-administrazio edo hirugarren batzuei laga edo komunikatzea onartzen da. Halaber, berariazko baimena ematen da Derioko Udalak horiek trata ditzan, betiere arestian azaldutako helburuak betetzeko bada.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau oso-osorik argitaratuko da Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, eta indarrean sartuko da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 eta 65.2 artikuluetan aipatutako 15 egun balioduneko epea igarotakoan.



I. ERANSKINA
ADINGABEAK ZAINZA ALDERA LANGABETUAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZAK
ESKAERA

Izen-abizenak:	NAN:	
Helbidea:		
Herria:	Posta kodea:	Lurralde:
Telefonoa zenbakiak:	Posta elektronikoa:	

BERE ERANTZUKIZUNPEAN AITORTZEN DU:

- Gizarte Segurantzarekin, Ogasun Foru edota estatuarekin ordaindu beharreko kuoten ordainketan egunera nagoela, eta ez ditudala Derioko Udalarekin zorrik. (2003ko azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege orokorraren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 24 eta 22 artikuluekin bat etorritik).
- Dirulaguntzari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 eta 13.3 artikuluek idazpuruak dioten bezala, diru-laguntzen deialdian onuraduna izatea debekatzen duten inguruabarretan ez dago sartuta.
- Kontratututako pertsonarekin bigarren mailara arteko (hori barne) odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko ahaidetasuna duen pertsona ez dela ezkontidea, ez ondorengo ahaidea, ez bestelako senidea.
- Deialdi honetan ezarritako baldintzak ezagutzen eta onartzen dituela.
- Derioko Udalari baimena ematen diola laguntza ekonomikoak emateko deialdi honetan eskatzen diren baldintzei buruzko informazioa beste administrazio publiko batzuetatik biltzeko.
- Eskatzailea ez dagoela administrazio publikoak emandako izaera bereko diru-laguntza baten ondorioz hasitako itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean sartuta.
- (Lanbide) – Pertsona kontratua emplegu eskatzaile gisa alta emandako egoeran dagoela adierazten duen Eskearen Alta edo Berritze Agiriaren (Darde) copia.



Eta egindako kontratazioa diruz laguntzeko deialdiaren oinarriei heltzeko eskatzen du.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- Dirulaguntza eskatzeko instantzia, bete eta sinatuta. (I. eranskina).
- Kontratatutako pertsonaren eta pertsona kontratugilearen NANaren kopia.
- Dirulaguntzaren xede den kontratuaren kopia.
- Nominaren ordainketaren egiaztagiria eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketaren egiaztagiria, banku-laburpen bidez Eea kontratatutako pertsonari Gizarte Segurantzaren alta emateko agiria.
- Dirulaguntzaren xede den kontratazioak gehiegizko finantzaketa ez duela azaltzen duen ziurtagiria (V. eranskina).
- Hirugarrenen alta fitxa, bankuko kontu-zenbakiaren titulartasuna justifikatzen duena (VI. eranskina).
- (Lanbide) – Pertsona kontratatua enplegu eskatzaile gisa alta emandako egoeran dagoela adierazten duen Eskearen Alta edo Berritze Agiriaren (Darde) kopia.
- Bidezkoa bada, kontratatutako pertsonak euskara dakiela ziurtatzen duen agiria: B2 edo goragokoa.
- Kontratatutako pertsonaren lan-bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egina 2020ko irailean.

Derion, 2020ko(a)(r)en ...(e)(a)n.

(Eskatzaileak izenpetua)



V. ERANSKINA
GEHIEGIZKO FINANTZAKETA EZ DAGOELAKO DEKLARAZIOA
ESKATZAILEA

NAN:	Izen-abizenak:
------	----------------

AITORTZEN DUT:

- Ez da eskatu eta ez da jaso dirulaguntzarik bestelako administrazio edo erakunde publikoagandik edo erakunde publiko zein pribatuagandik, dirulaguntza eskatzeko motiboa den ekitaldia finantzatzeko zati batean edo osoan:
- Beste erakunde publiko nahiz pribatu bati beste dirulaguntza edo laguntza ekonomikoa eskatu eta/edo erakunde horrek eman egin du diruz laguntzea eskatzen den jarduera osoa edo zatia finantzatzeko xehetasun honekin, diru-laguntza emateko ebazpenaren kopia erantsita:

Udalak dokumentazio edo informazio osagarria eska dezake, eskatzaileak helarazitako datuak zuzenak direla egiaztatzeko, eta administrazioak zehazten dituen egiaztapen-jarduerak onartu beharko ditu.

Derion, 2020ko(a)(r)en ...(e)(a)n.

(Eskatzaileak izenpetua)

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa bete nahian jakinarazten dizugu zeure datuak «Terceros Contabilidad» izeneko fitxategian sartu eta erabiliko ditugula. Fitxategi horren ardura Derioko Udalarari dagokio eta Udal kontularitza eta diru- sarreren, gastuen, abalen eta fiantzen aurrekontua egiteko eta estatistikarako erabiltzen duela. Interesatuak datu horiek eskuratu, zuzendu, baliogabetu eta aurkatu ahal izango ditu. Derioko Udaletxeko Erregistro Nagusian.



VI. ERANSKINA / ANEXO VI
**HIRUGARRENEN ALTA FITXA, BANKUKO KONTU-ZENBAKIAREN
 TITULARTASUNA JUSTIFIKATZEN DUENA
 FICHA DE ALTA DE TERCEROS JUSTIFICATIVA DE LA TITULARIDAD
 DEL NÚMERO DE CUENTA BANCARIA**

Banku kontuaren titularra / Titular de la cuenta bancaria:	
Izen abizenak / Nombre apellidos:	NAN / DNI:

HURRENGO KONTUAREN TITULARRA DELA ADIERAZTEN DU:
 DECLARA QUE ES TITULAR DE LA CUENTA SIGUIENTE:

(Subentzioko) Ordainketa egiteko edota helbideratu banku datuak: Datos bancarios a efectos del abono o domiciliación del ingreso (subvención):				
Finantza erakundea / Entidad financiera:				
IBAN	Banco	Sucursal	DC	Número cuenta
E S				

.....n, 2020ko(a)(r)en ...(e)(a)n.
 En....., a ... de de 2020.

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa bete nahian jakinarazten dizugu zeure datuak «Terceros Contabilidad» izeneko fitxategian sartu eta erabiliko ditugula. Fitxategi horren ardura Derioko Udalari dagokio eta Udal kontularitza eta diru- sarreraren, gastuen, abalen eta fiantzen aurrekontua egiteko eta estatistikarako erabiltzen duela. Interesatuak datu horiek eskuratu, zuzendu, baliogabetu eta aurkatu ahal izango ditu. Derioko Udaletxeko Erregistro Nagusian.

En cumplimiento de la LO 15/1999, de Protección de Datos de carácter personal, se le informa que sus datos personales serán incorporados y tratados en el fichero Terceros Contabilidad, del que es responsable el Ayuntamiento de Derio, cuya finalidad es realizar la contabilidad municipal y el presupuesto de ingresos, gastos, avales y fianzas y fines estadísticos. La persona interesada podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en el Registro General del Ayuntamiento de Derio.